



AYUNTAMIENTO DULANTZIKO
DE ALEGRIA UDALA
Servicio de Cultura - Kultur Zerbitzua



6
ANTZERKI
JAIALDIA

A M A T E U R

AZAROA 2012



www.alegria-dulantzi.net



A M A T E U R



6. JAIALDIA

ANTZERKI

JAIALDIAREN OINARRIAK

- 1.- Edozein tokitako talde ez profesional guztiek parte har dezakete, edozein eduki eta estiloko lanak aurkeztuz.
- 2.- Jaialdia Kultur Etxeko Txema Blasco Auditorioan izango da azaroaren 9tik 25era bitarteko asteburuetan, ostiral, larunbata eta igandeetan. Ikuskizunak 19.30ean izango dira.
- 3.- Taldeek izena eman dezakete 2012ko ekainaren 29ra arte.
- 4.- Parte hartu nahi duten taldeek udalaren WEB gunean (www.alegria-dulantzi.net) dagoen izena emateko orria bete beharko dute. Inprimatu eta bidali beharko dute ondoko informazio-agiriak derrigorrez jasoko duen dossier batekin:
 - Taldearen izena eta ordezkaria
 - Kontaktuan jartzeko pertsona
 - Antzezlanaren Titulo eta egilea
 - Taldeko teknikarien fitxa: Zuzendaria, teknikari eta antzezleen zerrendarekin
 - Laburpena (gehienez 9 lerro)
 - Antzezlanaren iraupena
 - Hizkuntza
 - Taldearen historia laburra
- 5.- Behar teknikoak eta muntaketakoak
 - Gutxienez obraren bi argazki.
 - Antzezlanaren zati baten bideoa edo guztiarena, entsegurarena izan daiteke.
 - Obraren kopia osoa DVD edo CD batean
 - IFKren kopia eta BEZetik salbetsita dagoen adierazteko aitortpena edo, halakorik ez badu, entitateak irabazi asmorik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- 5.- Izena emateko orria eta agiri guztiak honako helbidera zuzendu behar dira:

Posta arrunta
AMATEUR ANTZERKI JAIALDIA
ALEGRIA-DULANTZIKO UDALA
Herriko Enparantza, 1. zk.
01240 ALEGRIA-DULANTZI (ARABA)

Posta elektronikoa
casacultura@alegria-dulantzi.net
- 6.- Talde bakoitzak gehien jota bi muntaketa aurkez ditzake.
- 7.- Izena emateko epea amaituta, informazio-dokumentazio hori guztia aurkeztu ez dutenak, jaialditik kanpo geldituko dira.

8.- Aurkeztutako proposamenetatik, aukeratzeko Komite batek parte hartuko duten 8 muntaketa eta hiru erreserba hautatuko ditu. Zaletuen euskal antzerkiari laguntzeko, eta egoera hori ematen den guztietan, 8 muntaketen artean behintzat arabar talde batena aukeratu da eta beste bat gainerako Euskal Autonomia Erkidegoko probintzietakoa, baita euskaraz egindako bat ere. Ezingo da Komitearen erabakiaren aurka jo.

9.- Aukeratu ondoren, aukeratuta diren eta kanpoan gelditu diren talde guztiei emaitzaren berri emango zaie. Aukeraketa eta jakinarazpena iraila igaro baino lehen egingo da.

10.- Hautatutako obrek baimena izan behar dute esleitutako eguna baino lehen antzeztu ahal izateko.

11.- Honako sari hauek finkatu dira:

Muntaketa hoberena

1. saria.- 850 €

2. saria.- 550 €

Lehen aktorea onena: 300 €

Bigarren aktorea onena: 250 €

Lehen aktore onena: 300 €

Bigarren aktore onena: 250 €

Ikusleen saria: 250 €

Epaimahaiaren sari berezia: 250 €. Aipatutako sarien artean ez dauden beste alderdi berezi batzuetarako eta epaimahaiak hala erabakita (eszenografia, jantziak, e.a.)

Sariak Legeak finkatutako atxiki-pena izango dute.

12.- Sariak amaiera-ekitaldian, azaroaren 25ean, banatuko dira, eta

taldeek gain hartuko dute ekitaldi horretara derrigorrez joateko konpromisoa; taldeko ordezkari bat joango da gutxienez.

13.- Talde parte-hartzaile guztiek 500 euroko diru-laguntza eta diploma jasoko dute. Antolatzaileek erabakiko dute antzezpeneen ordena.

14.- Kultur Zinegotziak edo eskuorde-tzen duen pertsonak zuzenduko du epaimahaia, eta kultura eta ikuskitzinetako zenbait pertsonak (udalerrikoek) ere osatutako dute.

15.- Epaimahaiaren erabakia eta oinarri hauei buruz egiten duen interpretazioa apelaezinak izango dira, eta aipatutako edozein sari eman gabe uztea erabaki dezake.

16.- Jaialdian izena emateak lehia-tzaileek oinarri hauek onartzen dituztela esan nahi du, baita oinarri hauetan biltzen ez den edozein alderdiri buruz antolatzaileek hartzen duten erabakia ere.

Jaialdiari eta parte hartzeko oinarrii buruzko edozein argibide eska dezakezue honako telefono zenbaki hauetan:

945 420 830 astelehenetik ostiralerara 9.00etatik 14.00etara

945 420 704 astelehenetik ostiralerara 15.00etatik 21.00etara

OHARRA: Talde hautatuek, baieztapenarekin batera, jaialdiari, auditorioari, udalerritari edo intereseko beste alderdi batzuei buruzko informazio osagarria jasoko dute.